

↓ **Betsolariak eta lan taldeak**

Eneko Arrate

1989, Markina-Xemein



Lagunartean bertsotan sarritan egin ostean, euskalgintzak eta herri mugimenduak behar dutelako hasi zen plazetan kantatzen. Akerbeltz gaztetxean egin zuen lehenengo plaza, 2009an.

Xabat Galletebeitia

1986, Lekeitio



Markina-Xemeingo bertso-eskolako kidea da, eta 13-14 urtegaz hasi zen bertsotan. 2012an Plazatik Gaztetzera txapelketako irabazlea izan zen, Nerea Ibarzabalegaz batera.

Jon Rementeria

1984, Gernika-Lumo



Diseinu Industrialean Ingeniari Teknikoa eta Materialen Ingeniaria ikasketaz, ingeniari lanean dabil gaur egun. Bertsolaritza eta musika ditu zaletasun nagusiak, eta Lilibertsoko eta Sarkor musika taldeko kidea da.

Lander Ibarluzea

1983, Etxebarria



Gaztetatik bertso munduan murgilduta. Hiru aldiz izan da finalista Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan, 14 urtetik beherakoetan. San Antontxu Bertso Paper Lehiaketan bigarren saria lortu zuen 2000. urtean.

Iratxe Ibarra

1974, Markina-Xemein



Euskal Filologian lizentziatua. Irakaskuntzan ibili ostean, euskara teknikari dabil orain. 12 urterekin hasi zen bertsolaritzan. 2000 urtetik Bizkaiko Txapelketaren final gutietan kantatu du.

Julen Ibarguengoitia

1983, Gernika-Lumo



Duela 4-5 urte hasi zen bertso-tan Lilibertso bertsoeskolan eta gaur egun ere han jarraitzen du. Lehenengoz aurkeztu da aurten Busturialdeko Txapelketara eta Bizkaiko Txapelketara sailkatzea lortu du.

Joseba Artza

1978, Etxebarria



Enpresa Kudeaketa ikasi zuen, eta arlo horretan dihardu lanean. 1996an parte hartu zuen aurrenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. 2010eko Lea-Artibaiko txapelduna da.

Ander Elortegi

1985, Gernika-Lumo



Industria ingeniariaritza tekniko-ko ikasketan egin ostean, bertsolaritzaren transmisioan dabil lanean Bizkaiko Bertsozale Elkartean. 2004ko Busturialdeko Txapelketan parte hartu zuen lehenengoz.

Onintza Enbeita

1979, Muxika



2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalera. Harrezkero egon diren final gutietara sailkatu da Bizkaian. 2005, 2009 eta 2013ko Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen.

Gorka Ostolaza

1980, Markina-Xemein



Lea-Artibaiko txapelduna 2002an, 2004an eta 2008an, eta txapeldunordea 2006an eta 2010ean. Bost aldiz heldu da Bizkaiko Txapelketaren finalaurrekoetara.

Ibon Ajuriagojeaskoa

1977, Gernika-Lumo



Ingeles Filologian eta Aleman Filologian lizentziatua, eta Atzerriko Hizkuntzako Magisteritzan diplomatua. 2006ko Bizkaiko Txapelketa Nagusian finalera heldu zen.

Nerea Ibarzabal

1994, Markina-Xemein



Kazetaritzako ikaslea. Bizkaiko Txapelketan parte hartzen duen bigarren aldia du aurten goa. 12 urterekin hasi zen bertsotan. Eskolarteko Txapelketatan eta gazteen sari- ketatan kantatu izan du.

Julen Erezuma

1980, Gernika-Lumo



2008an hartu zuen lehenengoz parte Busturialdeko txapelketan. 2012an, txapela janztea lortu zuen. Parte hartu izan duen ba-koitzean Bizkaiko bertsolari txapelketarako sailkatzea lortu du.

↓ **Bertokoak txapelketa antolatze-ko taldeetan**

- **Talde antolatzailea.** Amaia Errasti (Markina-Xemein), Maddi Ibaibarriaga (Markina-Xemein), Esti Alberdi (Ondarroa), Itziar Basterretxea (Ondarroa) eta Moises Enbeita (Muxika).
- **Komunikazio taldea.** Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein) eta Maddi Ibaibarriaga.

- **Gai jartzaile taldea.** Leire Bilbao (Ondarroa).
- **Epaile taldea.** Ander Txakartegi (Berriatua), Mirari Azula (Lekeitio), Moises Enbeita, Xemein Larrinaga (Markina-Xemein) eta Iñaki Aurrekoetxea (Gernika-Lumo).